



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2023ko APIRILAREN 25ean EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2023ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 20.05etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2023.02.28ko Udalbatzarraren akta.**

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2023.urtekoak (057-113)**

3. 2022ko Aurrekontu Orokorren likidazioa eta 2022ko Lege Ingerak/Eragozpenak: Udalbatzarrari komunikazioa egitea.

4. 2023 Aurrekontu Orokorren 2. Kreditu aldaketa: hasierako onespena.

5. Asteasuko Udalaren emakume eta gizonen berdintasunerako Udal Plangintza 2023-24: onespena

6. Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuak aldatzea: onespena

7. Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak %2,5 gehigarria igotzea: onespena

SINA73498efa-f405-41bb-943e-0c559c64ae1ae

8. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2023.02.28ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartergi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu aktak onartu ditu.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2023.urtekoak (057-113)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

2022ko Aurrekontu Orokorren likidazioa eta 2022ko Lege Ingerak/Eragozpenak: Udalbatzarrari komunikazioa egitea.

Idazkariak hitza hartu du. Martxoaren 6ko 2023/065 Alkatetza Dekretuaren bidez, udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartu da; horrekin batera, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-eragozpenak



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

(erreparoa/oharrak) jakinarazi behar zaizkio Udalbatzari eta, ondoren, Euskadiko Kontu Auzitegiari. Hau da dekretu horren laburpena:

Lehena.- Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:		1.925.659,58
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		383.743,08
Aurrekontuko zordunak :	382.345,42	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.397,66	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		443.851,29
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	281.588,66	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	162.262,63	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		1.865.551,37
5.- Saldo kobragaitzak:		29.162,72
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		26.797,94
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.809.590,71

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	792.917,79
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-9.096,83
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	166.984,63
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-26.797,94
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	924.007,64

SINA73498efa-f405-41bb-943e-0c59c64ae1ae

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	473.619,69
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	125.175,30
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	598.794,99

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Espedientean Idazkaritzako txosten ekonomikoa jaso da, eta horrekin batera idazkaritzak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa ere jaso da; 2022 urtean arau fiskalak eten dira.

Era berean, 2022 urtean Bitarteko Idazkariak eginiko eragozpen hauek egin zituen:

- Eragozpena 2022/01.
- Eragozpena 2022/02.
- Eragozpena 2022/03.
- Eragozpena 2022/04.
- Eragozpena 2022/05.
- Eragozpena 2022/06.
- Eragozpena 2022/07.

Idazkariak hitza hartu du: eragozpen horiek likidazioarekin batera udalbatzarrera ekarri dira, legez egin behar den moduan.

Alkate andreak hitza hartu du: eginiko erreparoen aurrean, berari dagozkion justifikazioak egin zituen.

Beraz, Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioa onartu eta gero, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-ingerak (erreparoak/oharrak) helarazi zaizkio Udalbatzarrari. Segidan, Euskadiko Kontu Auzitegiari jakinaraziko zaio.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

2023 Aurrekontu Orokorren 2. Kreditu aldaketa: hasierako onespena.

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2/2023 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Horrekin bat, Idazkari-Kontuhartzaileak egindako egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostena irakurri da.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartergi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, eta espedientearen jasota dauden dokumentuak ikusirik Udalbatzarrak,

ERABAKIA HARTU DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	29.700,00
6	INBERTSIO ERREALAK	306.750,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		336.450,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	336.450,00
GUZTIRA		336.450,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

BOSGARREN PUNTUA

Asteasuko Udalaren emakume eta gizonen berdintasunerako Udal Plangintza 2023-24: onespena

AURREKARIAK

Planifikazio hau, aurrerago ikusiko dugun bezala, Udalerriarentzat estrategikoa izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen BERDINBIDEAN programatik bideratzen eta bultzatzen den zerbait da. Badira urteak Asteasu programa honetan dagoela, eta urte bakoitzean ardatz ezberdin bati heldu izan dio.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurtengoan, Genero Ikuspegia Tokiko Kultura Politiketara txertatzeko mintegiak eduki eta lan tresna osatu dugunez, Berdintasun Sailerik adar honi heltzea erabaki dugu. Baina horrek bakarrik ez du osatuko datozen bi urtetan Asteasun berdintasunaren alorrean egingo ditugun lanak ezberdinak. Hori dela eta, plangintza honetan hainbat adarri heldu diegu 2023-2024 urteetan zehar lanak egiteko.

Hiru ardatz nagusi edukiko ditu Plangintza honek: Gobernu ona, Emakumeen Ahaldundua eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Gipuzkoa.

Lehenengo ardatzean Planifikazio honen jarraipena egiteko baldintzak sortzea da helburua, Udaleko arlo ezberdinak berdintasun politiken garapenean inplikaturik bide batez. Ez hori bakarrik, berdintasun politikak garatzeko ikuspegi amankomuna bermatzeko neurriak ere jasotzen ditugu bertan.

Bigarren ardatzari dagokionez, Emakumeen Ahaldunderako tresna eta espazioak eskaintzea litzateke helburua. Bide horretatik, herrian dauden kulturako ikastaroen birpentsaketa eta birplanteamendu bat egiteko prozesua jarriko genuke abian. Ildo beretik, lehenagotik antolatuta dauden ikastaroen dinamizatzailerekin ere lan taldeak osatu nahiko genituzke, jada martxan dauden ikastaroetan genero eta ahaldunduei txertatzeko.

Ardatz berean, bigarren helburu bezala edukiko genuke herriko jaiak eta aisialdi gune eta ekimenak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko guneak bultzatzeko pausak ematea. Bide horretatik, jaietako zein kultur programazioan genero ikuspegia txertatzeko gure alde batetik, eta bestetik herrian antolatzen diren San Pedro jaietan Herriar Laguntza Sarea, Protokoloa, eta Indarkeria Matxistatik Gabeko GUNEAK osatuko genituzke.

Hirugarren eta azken ardatzari dagokionez, herrian indarkeria matxistaren kontrako jarduerak sustatzea litzateke lehenengo helburua. Orain arte SOKA egitasmoaren barruan Gaztelekuak bertaratzen diren gazteekin honen inguruko lanak egin izan dira. Prozesu hori amaitu den arren, jarraipena eman nahiko genioke aurreko prozesuan osatzeko gure diru puntuei helduz.

Era berean, ardatz honen bigarren helburua litzateke indarkeria matxistari aurre egiten dioten zerbitzuaren arteko koordinazio hobetzea alde batetik, eta herriko eragileek borroka horretan eduki dezaketen papera zehaztu eta tresna egokiak eskaintzea bestetik. Bide horretatik, Asteasun Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arretarako eta Koordinaziorako Lehenengo Protokoloa martxan jarri dugu, baita bertako eragileak bilduko dituen Mahai Interinstituzionala ere. Bigarrenik, San Pedro Jaietara begira Erantzun Publikoaren inguruko hausnarketak osatu nahi ditugu eragile ezberdinekin.

Hiru ardatz hauek kontuak izanik, hortaz, Asteasuko Udaleko Berdintasun Sailak hurrengo bi urteetarako lanak hauei eskainiko die denbora eta arreta.

HELBURUAK

Hau ikusita, Planifikazio honek, hortaz, helburu orokor eta nagusi bat dauka: **Asteasuko Udalean datozen bi urteetan Berdintasun Saitetik landuko diren ardatzak eta bideak zehaztea, eta guzti hauek marko estrategiko baten barruan kokatzea.**

Helburu espezifiko moduan, aldiz, hauek Planifikazio hau antolatzen den hiru esparruen arabera sailkatu genitzake.

Alde batetik, GOBERNU ONAri dagokionez, helburu espezifiko hauek edukiko lituzke:

1. Zehazten den planifikazio hau diseinatzeko, gauzatzeko eta jarraitzeko beharrezkoak diren lan egiturak sortzea.
2. Udal teknikari zein politikariei berdintasun politikak garatzeko beharrezkoa den jakintza eskaintzea.

Honez gain, lehenengo ardatzari begiratzen badiogu, EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALOREEN ALDAKETAZ hitz egingo genuke, helburu espezifiko hauek edukiz:

1. Emakumeen Ahalduntzea bultzatzea.
2. Herriko jaiak eta aisialdi gunee eta ekimenak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko guneak bihurtzeko pausoak ematea.

Azkenik, hirugarren ardatzari begiraturaz gero, INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GIPIZKOAN lanketa helburu zehatz hauek topatuko ditugu:

1. Herrian indarkeria matxistaren kontrako jarrerak sustatzea.
2. Indarkeria matxistari aurre egiten diotenei zuzendutako arreta eredu hobetzea.

LEGE-OINARRIAK

Aurrekarietan zein helburuetan aipatutako ardatzak ez dira kasualitate; hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean oinarritzen dira. Plan hau EAeko berdintasunaren arloan botere publikoen jarduera bideratuko duen ibilbide-orria da. Bertan, Eusko Jurlaritzak eta bere sailek, foru-aldundiek eta udalek esku-hartzearekin zein helburu orokor betertzen dituzten agertzen da, Berdintasunerako Legeak eskatutako jarduera-programen eta plangintzaren bitartez.

Bide beretik, aipagarria eta oinarritzakoa da ardatz hauek beste programa-esparru batzuekin ere bat datozela, hala nola Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuekin.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Planifikazioan murgilduz, eta lege-oinarriei helduz, 1/2022 legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoak honakoa dio 7.artikuluari:

“Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek funtzio hauek bete behar dituzte, bai banaka, bai partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkarteen bidez edo lege honen xedeetarako eratzen dituztenen bidez:

(...)

c) **Toki-eremuan plangintza egitea**, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundien lurralde-plangintzaren esparruan, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta **lurralde-errealitatera egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea**”.

Ez hori bakarrik, 10.artikuluari ere honela dio lege berberak:

“10. artikulua.– Foru-administrazioak, toki-administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk.

1.– Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, administrazio bakoitzak gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat izan dezan, bakoitzaren jardun-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, planifikatu eta ebaluatzeko eta horiei buruz aholku emateko, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko politikak barne.

2.– Entitate, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez funtzio hauek beteko dituzte:

a) **Berdintasunaren arloko plangintza eta jarraipen- eta ebaluazio- mekanismoak diseinatzea**, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta dagozkien esku-hartze esparruetara egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea”.

Hortaz, plangintza eta gidalerro hauek edukitzea legearen arabera beharrezkoa da, baita hauen jarraipena zein ebaluazioa egiteko mekanismoak edukitzea ere.

Gobernu Onaren ardatzera saltoa eginez gero, lehen aipatutako 1/2022 legeak, martxoaren 3ak, badu zer esana honen inguruan. Hasteko, 7.artikuluari honela dio:

“7. artikulua.– Toki Administrazioa.

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek funtzio hauek bete behar dituzte, bai banaka, bai

partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkarteen bidez edo lege honen xedeetarako eratzen dituztenen bidez:

a) **Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko**”.

Hau da, tokiko administrazioek estrukturak, programak eta prozedura egokiak sortu behar dituzte genero-ikuspegia txertatzeko. Bide horretatik, Planifikazioko Gobernu Onaren ardatzean, hainbat neurri bildu dira helburu horiek betetzeko.

Bide beretik, lege horretan bertan, 10. Artikuluak honakoa dio:

“10. artikulua.– Foru-administrazioak, toki-administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk.

1.– Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, administrazio bakoitzak gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat izan dezan, bakoitzaren jardun-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, planifikatu eta ebaluatzeko eta horiei buruz aholku emateko, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko politikak barne.

2.– Entitate, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez funtzio hauek beteko dituzte:

(...)

d) **Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendeen dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta haiekin lankidetzan aritzea**”.

Gobernu Onaren ardatzari dagokionez, hortaz, lege eskakizunei zein Berdintasun Sailak eduki ditzakeen interes estrategikoei erantzuten diote Planifikazioan txertatu ditugun helburu ezberdinek.

Lehen ardatzera, Emakumeen Ahalduntzearen ardatzera igaroz gero, honakoa dio 1/2022 legeak, martxoaren 3koak, 4. Artikuluan:

“Laugarren artikulua.– Aldatu egiten da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua. Honela geratuko da:

“3. artikulua.– Printzipio orokorrak.

(...)

5.– Genero-ikuspegiaren integrazioa.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan diferentek, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, exekutzeko eta ebaluatzeko fase guztietan.

(...)

11.– Emakumeen ahalduntzea.

Euskal botere publikoek baldintzak ezarri behar dituzte eta behar diren egokitzapenak egin behar dituzte emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta.

Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein modu kolektiboan, bai eta beren bizitzetara buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere”.

Emakumeen Ahalduntzea izango da Plangintza honetako lerro garrantzitsuenetako bat. Besteen garrantzia eta beharrezkotasuna ukatu gabe, BERDINBIDEAN programaren baitan antolatutako Genero Ikuspegia Tokiko Kultura Politiketara lan-tresnatarik abiatutako lanketa izango da honakoa, herriko ikastaroen bitartez emakumeen ahalduntzearen inguruko lanketak egingo ditugu eta.

Lege berberarekin jarraiki, 7.artikuluan ere honakoa aipatzen da:

“7. artikulua.– Toki Administrazioa.

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek funtzio hauek bete behar dituzte, bai banaka, bai partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkarteen bidez edo lege honen xedeetarako eratzen dituztenen bidez:

i) **Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea dutela bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea edo baliabideak ezartzea**, hala nola ahalduntze-eskolak,

emakumeen etxeak, sare komunitarioak eta udalez gairikoa edo beste batzuk, zerbitzu horien izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean”.

Lege eskakizun honen bidetik doa, hortaz, egingo den ikastaroen inguruko birplanteamendua, orain arteko kultur eskaintzari astindu bat eman eta emakumeen interes eta beharrei erantzun bat emanez.

lido beretik jarraiki, 10.artikuluari begiratzen badiogu, honakoa dio:

“10. artikulua.– Foru-administrazioak, toki-administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk.

1.– Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, administrazio bakoitzak gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat izan dezan, bakoitzaren jardun-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, planifikatu eta ebaluatzeko eta horiei buruz aholku emateko, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko politikak barne.

2.– Entitate, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez funtzio hauek beteko dituzte:

(...)

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan”.

Hortaz, estrategikoki zein Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen egitasmoa izateaz gain, lege honen arabera emakumeen ahalduntzea bultzatzea Asteasuko Berdintasun Sailaren funtzioetako bat ere bada.

Lege berberarekin jarraiki, 52.artikulua aipatu nahiko nuke azkenekoz. Artikulu honetan Indarkeria Matxistaren inguruko sentsibilizazio eta prebentzioaz hitz egiten da. Honekin Emakumeen Ahalduntzearen ardatzaren eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Gipuzkoaren ardatzen arteko zubi-lana egin nahiko nuke, izan ere, jarraian ikusiko den bezala, Indarkeria Matxistaren prebentzioan emakumeen ahalduntzea bultzatzea prozesu behar-beharrezkoa da. Hortaz, ezin bi ardatzak banandu, bata bestera eramango gaitu eta, emakumeen ahalduntzea bultzatzeak indarkeria matxistaren prebentzioan aritzea hain zuzen.

Honakoa dio, beraz, 52.artikuluak: .

“52. artikulua.– Sentsibilizazioa eta prebentzioa.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

1.– Kontuan izanik emakumeen kontrako indarkeria matxista emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria adierazpen kaltegarri eta nabarmenetako bat dela, hura prebenitzeko, **euskal administrazio publikoek lege honetan eta indarreko gainerako arauetan aurreikusitako berdintasunerako eta emakumeen ahalduntzerako neurri guztiak sustatuko dituzte, eta modu eraginkorrean aplikatuko**, eta, batez ere, hezkuntzaren eta hezkidetzaren sustapenaren eremukoak eta komunikabideen eremukoak.

2.– Ezertan eragotzi gabe lege honetan aurreikusitako gainerako prebentzio-neurriak, euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, koordinaturik eta berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta ezabatzeko helburuarekin, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen eta gizonen jokamolde soziokulturaletan aldaketak sustatzeko, eta, hartara, emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta jardunak ezabatzeko.

Era berean, **genero-desberdinkeria aurre egiteko programak eta jarduerak egin behar dituzte, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak barne, bereziki emakumeei zuzenduta, haien autonomia, kontzientziazio feminista eta ahalduntzea indartzeko, eta gizonei, berriz, maskulinitate matxista eta bortitzak deseraikitze, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako eragile aktibo bihurtzeko.**

Bereziki sustatuko dira haurtzaro eta gaztaroaren sustapen-programak eta -jarduerak, neska txikiei eta neskei ahotsa eman eta haien ahalduntzea bultzatzen dutenak, eta mutikoak eta mutilak berdintasunean inplika daitezzen bultzatzen dutenak. Era berean, adineko emakumeei eta lege honen 3.1 artikulua azken paragrafoan aipatutako diskriminazio anizkoitza eragiten duten faktoreak dituzten emakumeei zuzendutako programak sustatuko dira.”

Artikulu honetan aipatzen den bezala, bereziki haurtzaro eta gaztaroan lantzen diren sustapen-programa eta jarduerak izango dira garrantzitsu; aurrekarietan agertu bezala, SOKA egitasmoaren barruan abiatutako prozesuari jarraipena emango diogu 2023-2024 epealdian, gazteen artean indarkeria matxistaren inguruko prebentzio eta sentsibilizazioan etenik ez egoteko.

Orain arte aipatutakoa kontuan harturik, Plangintza honek hainbat beharri erantzuten diela azpimarratu nahiko nuke. Alde batetik, bi urtetan zehar Asteasun landuko diren adar eta ardatzak biltzen ditu. Honi esker, datozen hilabeteetan egingo diren lanketek bide bati jarraituko diote, eta aipatutako ardatz horien arabera antolatuko dira. Hau da, Berdintasun Sailetik abiatuko diren ekintza eta egitasmoek gorputz bat edukiko dute, eta prozesu eta planifikazio oso eta osatu baten barnean kokatuko dira.

Bide beretik, Udalerriarentzat eta Berdintasun Sailarentzat lagungarri izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen BERDINBIDEAN programaren baitako eskakizunei erantzuna ematen diote.

Azkenik, legearen hainbat eskakizun bermatzen ditu, eta EAEko Berdintasun Planaren ildoak jarraitzen ditu.

Asteasuko Udaleko Berdintasuneko Teknikariak aurretik txostena eman du.

Berdintasun eta Bizikidetzarako Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartergi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak,

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. "Asteasuko Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plangintza 2023-2024" onartzea.

BIGARRENA. Interesdunei erabaki honen berri ematea



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Asteasuko Udalaren
Emakume eta Gizonen Berdintasunerako
udal plangintza
2023-2024

Dokumentu honek, Asteasuko herriak Berdinbideanen baitan 2023-2024 epealdian garatu beharreko berdintasun politiken planifikazioa jasotzen du. Planifikazio honen helburu nagusia udalak martxan jarriko dituen berdintasunerako ekintza guztiak marko estrategiko baten barruan kokatzea da. Era berean – eta 4/2005 Legea otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa ezartzen duen bezala – Eusko Jaurlaritzak legealdi bakoitzean onesten duen plan orokorrak jasotzen dituen jarraibide eta gidalerroekin bat dator.

Planifikazio hau jorratzeko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen Berdinbidean Programaren laguntza eta aholkularitza jaso du. Zentzu horretan, planifikazio honen garapen prozesua (definizioa, implementazioa eta jarraipena) Berdinbidean programak ezarritako lan metodologia jarraituz burutu da. Metodologia horrek ondorengo ekintzak burutzea eskatzen du:

- Udal mailan planifikazio honen garapenaren ardura duen ordezkari tekniko eta politiko bat izendatzea.
- Urtero, planifikazioa udalerraren behar eta aukeretara egokitzeko, Berdinbidean Programaren Laguntza Teknikoarekin batera udaletxean bertan burutzen diren banakako saioetan parte hartzea.
- Planifikazioa udal mailan bultzatzeko beharrezkoak diren oinarritzko baldintzak bermatzeko helburuarekin, udal politikari zein teknikari guztiei zuzenduriko Berdinbidean Programak eskaintzen dituen formakuntza saioak burutzea (saio horiek udaletxean bertan burutzen dira).
- Berdinbidean Programan parte hartzen duten beste udalerrien ordezkari politiko eta teknikoekin batera antolatzen diren mintegi kolektiboetan parte hartzea.
- Urteko aurrekontuetan gutxieneko partida bat berdintasun politiketara bideratzea.

Azkenik, aipatu beharra dago, planifikazio honek aipatu den 4/2005 legeak ezartzen dituen tokiko administrazioei dagozkien eginkizunak aintzak hartzen dituela. Zentzu horretan, dokumentu honek jasotzen duen planifikazioa udalak eginkizun horiek betetzeko duen konpromisu eta borondatearen adierazgarria da.



2.

PLANAREN EGITURA

Plangintza honek EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana hartzen du eredutzat, Gipuzkoako Lurraldeko udalerrri txikien egoera eta aukeretara egokituz. Eredu hau jarraituz Plana ondorengo atalen arabera egituratu egiten da:

- 1. Aurkezpena:** Plana burutzeko lan prozesuaren deskribapena Berdinbidean Gipuzkoa Programaren markoaren barruan.
- 2. Planaren egitura:** Planaren dokumentuaren egituraren deskribapena.
- 3. Ardatzak:** EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana jarraituz, ardatz eta programen arabera adostutako helburu eta ekintzen deskribapena (horiek burutzeko arduradunak eta egutegia zehaztuz):

Gobernu ona	Emakumeen Ahalduntzea	Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eskubideak bermatzeko eraldatzea,	Indarkeria matxistarik gabeko Gipuzkoa
<ul style="list-style-type: none"> - Lan egitura eta dinamikak. - Formazioa. - Lan egiteko moduak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahalduntze prozesu estrategikoak. - Jaiak Berdintasunean. - Herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio kanpainak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume zaintzaileen egoera. - Zaintza-sare komunitarioak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean. - Arreta zerbitzuen koordinazioa.

- 4. Baliabideak:** Plana aurrera eramateko erabiliko diren baliabideen deskribapena.
- 5. Jarraipena eta ebaluazioa:** Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko burutuko diren lan dinamika eta erabiliko diren lan tresnen aurkezpena.

GOBERNU ONA

Gobernu Onaz hitz egitea demokrazia parte-hartzaileaz, giza eskubideetaz eta justizia sozialaz hitz egitea da. Zentzu horretan, genero ikuspegia politika publikoetan txertatzeak Gobernu Onarekin lotura zuzena dauka, genero berdintasuna gizarte demokratikoetan harremanak antolatzen dituen printzipio gisa hartzea suposatzen baitu. Abiapuntu honetatik genero zeharkakotasuna edo mainstreaminga Gobernu Ona bultzatzeko estrategia gisa ulertzen da. Hau da, gizon eta emakumeak baldintza beretan baliabideak eskuratzeko eta eskubideetaz gozatzeko aukera bermatzen duten politikak bultzatzea eskatzen du. Horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4. artikulua ezarritakoa betetzea dakar:

3.4. artikulua. Genero-ikuspegia txertatzea

Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoreetarako, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio- fase guztietan.

Genero mainstreaming estrategia berdintasun politiken bilakaeraren ondorio bat bezala ulertu daiteke. Emakume eta gizonen berdintasun politiken garapena indarrean dauden desberdintasunak konpentsatzeko eta bizitzaren esparru guztietan emakumeen presentzia bultzatzeko helburua zuten emakumeei zehazki zuzenduriko neurrietatik, esku hartze globalago batera igaro da. Ikuspegi global honek gizartea bere osotasunean kontutan hartzen du eta izaera estrukturala dauka. Beraz, helburua genero desberdintasunen euskarriak eraldatuz emakumeen posizio soziala aldatzea da eta ez soilik beraien egoera. Horretarako, bultzatzen diren politikek ere izaera integral horri erantzutea ezinbestekoa da. Hau da, arlo eta departamentu guztien politiken berrantolaketa integrala, estrukturala eta horizontala bultzatu behar da. Berrantolaketa honek politikan diharduten eragile guztien parte hartzea eskatzen du eta baliabide zehatzak baita ere.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zeharkakotasunaren estrategia indartze aldera, lan ildo honen garapena hiru eremu edo programa ezberdinetan oinarrituko da:

1. Lan egitura eta dinamikak.
2. Formazioa.
3. Lan egiteko moduak.

GOBERU ONA

Programa	Lan egitura eta dinamikak		
Helburua	1.1. Zehazten den planifikazioa diseinatzeko, gauzatzeko eta jarraitzeko beharrezkoak diren lan egitura eta dinamikak sortu		
Helburu zehatzak	1.1.1. Ekintzen jarraipena egiteko baldintzak sortu 1.1.2. Udaleko arlo ezberdinak berdintasun politiken garapenean inplikatu		
Neurriak	Arduradunak	Epea	
1.1.1.1.	Maila tekniko eta politikoan planifikazioaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan bilera zehatzak gauzatu. Bilera horietan Berdintasun Teknikariak, Berdintasun Zinegotziak, Alkateak eta Kultura-Kirola-Berdintasuna Teknikariak parte hartuko dute. Oro har hilabetero egingo diren bilerak izango dira, nahiz eta momentu puntaletan gehiagotan bildu, beharren arabera. Bi teknikariek plangintzako ekintzak antolatu eta koordinatuko dituzte, Alkate eta Zinegotziaren laguntzaz beti ere. Jarraipen eta ebaluaziorako lan bilera hauek erabiliko dira.		
1.1.1.2.	Plangintza osatutakoan Udalbatzarretik pasako da, hurrengo legealdian batzen diren zinegotzi berriei aurkeztuz ondoren.		

1.1.1.3. Honako planifikazio hau osatzean, udal taldean aurkeztuko da, maila politiko zein teknikoan, arlo ezberdinak planifikazio honen jakinaren gain egoteaz gain, bertan inplikatzeko

GOBERU ONA

Programa

Formazioa

Helburua

1.2. Udal teknikari zein politikariei berdintasun politikak garatzeko beharrezkoa den jakintza eskaintzea

Helburu zehatzak

1.2.1. Berdintasun politikak garatzeko ikuspegi amankomuna bermatu

Neurriak

Arduradunak

Epea

1.2.1.1. Berdinbideaneko formazioa burutu udaleko ordezkari tekniko zein politikoeekin. Formazio honi esker, orain arte identifikatu ditugun behar zehatzak beteko genituzke, hala nola, Udal mailan genero transbertsalitatea mantentzea, koordinazioa bermatzea eta planifikazio honetan berdintasun sailetik haratago beste udaleko esparruek ere parte hartzea



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

--	--	--

1. ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA eta BALOREEN ALDAKETA

Ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako. Emakumeen Nazioarteko IV. Biltzarrean erabaki zen bezala, emakumeen ahalduntzerik gabe ez dago berdintasunik (Beijing-eko Adierazpena - 1995-, 13. artikulua). Emakumeen ahalduntzea norberetik hasi, talde lanera abiatu eta gizarte eraldaketa azken helburutzat duen prozesu bat da. Zentzu horretan, berdintasun politika publikoek hiru maila haorietan (norberekoa, talde eta gizarte mailan) ahalduntzea sustatu, garatu eta errazteko tresnak eskaini beharko dituzte.

Norbereko mailan emakumeak, dagozkion testuinguruan kokaturik eta genero harremanak kontutan harturik, gertatzen zaiena aztertzen eta ulertzen hasten dira. Era horretan genero harremanak norberaren bizitzan duen eraginaren inguruan kontzientzia hartzen doaz. Maila honetan ematen den ahalduntzeak gure inguru hurbila beste ikuspegi batetik ulertzen laguntzen du. Ondorioz, emakumeen eguneroko harremanei dagokionez erabakiak hartzen lagunduko du, inguru hurbilean aldaketak egiteko gaitasuna sustatuz.

Norberetik **talde mailara pasatzean** kontzientzia maila kolektiboa lantzen da. Hau da, beste emakume batzuekin sare eta harremanak sustatuz, eta hausnarketa bultzatuz, amankomunean partekatzen diren helburu eta jomugak adosten joatea suposatzen du – elkarrekin eraiki nahi den gizarte ereduaren inguruan adostasunetara iristea suposatzen du –.

Ahalduntze prozesuen azken bidea **gizarte eraldaketa** dela aipatzean, genero harremanak eraldatzeko eta berdintasunean oinarritutako gizartea lortzeko beharrezkoak diren koordinazio eta lanerako egiturak eta ekintza kolektiborako neurriak lantzeaz ari gara. Zentzu horretan, emakumeen ahalduntzeaz hitz egiterakoan ezinbestekoa da prozesu hauek parte hartze soziopolitikoarekin lotzea. Hau da, emakumeak diskriminazio egoerak identifikatu eta horiei aurre egiteko estrategia kolektiboak bultzatzea ahalbidetuko dituzten baldintzak bermatu behar dira, era honetan emakumeen parte hartze sozio politikoa indartuz.

Gizartearen eraldaketaz aritzeak, emakumeen ahalduntzeaz gain, balioen aldaketaz aritzea eskatzen du. Balioen aldaketa genero harremanak aldatzeko oinarritzko baldintza bat da. Hau da, generoen arteko desoreka eta diskriminazio harremanak sustatzen dituzten balioen aldaketa beharrezkoa da berdintasunean oinarritutako harremanak finkatzeko. Azken finean, balioek gizon eta emakumeen arteko harremanak arautzen dituzte eta barneratuta dugun munduaren interpretazioaren euskarriak dira.

Ardatz honetan emakume eta gizonen diskriminazio egoerak sustengatzen dituzten balioen aldaketarako neurriak eta emakumeen ahalduntze prozesuak indartzera bideratutako neurriak biltzen dira ondorengo programa desberdinen arabera:

1. Ahalduntze prozesu estrategikoak.
2. Herri eredu berdinzalea.



1. ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA eta BALOREEN ALDAKETA

Programa	Ahalduntze prozesu estrategikoak		
Helburua	2.1. Emakumeen Ahalduntzea bultzatu		
Helburu zehatzak	<p>2.1.1. Emakumeei beraien ahalduntze prozesuetarako tresnak eta espazioak eskaini</p> <p>2.1.2. Lehenagotik antolatuta dauden ikastaroetan genero ikuspegia zein ahalduntzea txertatu</p>		
Neurriak	Arduradunak	Epea	
<p>2.1.1.1. Herriko emakumeen interesak bildu eta lanketa egin, ondoren ahalduntze ikuspegi batetik ikastaro berriak antolatze aldera</p> <p>2.1.1.2. Herriko emakumeei galdetegi bat pasa ikastaroekiko euren interesak biltzeko</p> <p>2.1.1.3. Interes hauek bildutakoan lan taldeak osatu eta bilera ezberdinak egin</p> <p>2.1.1.4. Lan talde hauetatik hurrengo ikasturtera begira antolatu daitezkeen ikastaroen plangintza egin</p> <p>2.1.2.1. Egun martxan dauden kultura/kirol ikastaroetako dinamizatzailleekin, kultur ekoizleekin lan taldeak osatu genero ikuspegia zein ahalduntzea landu eta txertatu ahal izateko</p>			

1. ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA eta BALOREEN ALDAKETA		
Programa	Herri eredu berdinzalea	
Helburua	2.2. Herriko jaiak eta aisialdi gune eta ekimenak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko guneak bihurtzeko pausoak ematea	
Helburu zehatzak	<p>2.2.1. Gure herrietako jaietan antolatutako ekimen eta ikuskizunetan genero ikuspegia txertatzea</p> <p>2.2.2. Bultzatzen diren kultura ekimenetan berdintasunaren aldeko balore eta helburuak txertatzea</p>	
Neurriak	Arduradunak	Epea
2.2.1.1 Jaietako programazioa genero ikuspegi batetik aztertu eta planifikatzea (hala nola eszenatokietan nor egongo den, ze talde kontratatzen den, zein diren kideak... kontuan izanez)		
2.2.1.2 Herriko San Pedro Jaietara begira Herritar Laguntza Sarea osatu, eta Festetako Protokoloa martxan jarri. 2019an hasitako prozesuari jarraipena eman		
2.2.1.3 Herriko San Pedro Jaietara begira Puntu Morea jarri, erasoan aurkako sentsibilizazio eta prebentzio moduan		
2.2.2.1. Urtean zehar antolatzen diren ekimenetan genero ikuspegia txertatu		



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

3. ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GIPUZKOA

Indarkeria matxistaren adierazpenak gizartearen maila desberdinetan aurkitzen ditugu eta era eta forma desberdinetan gauzatzen dira. Indarkeria horren oinarria genero botere-harreman desorekatuetan dago eta azken helburua genero botere harreman horiek hainbat mekanismoren bidez sortzea eta birsortzea besterik ez da. Ezinbestekoa da indarkeria matxistaz ari garenean kontzeptu honek bere baitan biltzen duen fenomenoaren konplexutasuna ulertzea eta horretarako, garrantzitsua da oso, erabiliko den terminologia ondo ulertzea eta adostea.

Zentzu honetan eta Gipuzkoako Berdintasun Teknikariek onartutako kontzeptualizazioa jarraituz, **indarkeria matxista**, sexu-genero-sexualitate sistemaren logikatik kanpo kokatzen den pertsona orok jasotzen duen indarkeria da. Indarkeria matxistaren kontra borrokatzeak, emakumeek emakume izatearren jasotzen duten indarkeriari aurre egiteaz gain, transfobia, lesbofobia eta homofobiari ere aurre egitea suposatzen du.

Aldiz, **indarkeria sexista** aipatzen dugunean, emakumeak emakume izatearren jasotzen duten indarkeriaz ari gara, eredu maskulino eta femeninoaren arteko desoreka eta hierarkizazioa agerian uzten duena. Genero indarkeriaz ari garenean aldiz, 1/2004 Lege Organikoan, Abenduaren 28koa, genero indarkeriarako babes neurriak jasotzen dituenak egiten duen definizioa hartzen dugu aintzat, hau da: genero indarkeria harreman heterosexualetan bikote edo bikote ohien eskutik emakumeek jasotzen duten indarkeria da.

Indarkeria matxistari aurre egiteko, 2 lan eremu edo programa nagusi identifikatzen dira:

1. Indarkeria matxistaren prebentzioa
2. Indarkeriaren arreta.

3. ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GIPIZKOA

Programa	Indarkeria matxistaren prebentzioa		
Helburua	4.1. Herrian indarkeria matxistaren kontrako jarrerak sustatu		
Helburu zehatzak	<p>4.1.1. Neskekin jabetze prozesuak indartu eta indarkeriaren kontrako kontzientzia sustatu</p> <p>4.1.2. Mutil gazteen artean maskulinitate eredu zapaltzaileak deseraikitze prozesuak abian jarri</p> <p>4.1.3. Herriko gazteak indarkeria matxistaren kontrako eragile aktibo bihurtu</p> <p>4.1.4. Herri eragileen kontzientzia handitu eta indarkeria matxistaren inguruko hausnarketarako elementuak eskaini</p>		
Neurriak	Arduradunak	Epea	



4.1.1.1. Asteasuko Gaztelekuko neskekin SOKA egitasmoaren barruan abiatutako prozesuari jarraipena eman, autodefentsa, autoestima... Lantzen jarraituz eta aurreko prozesuko alor ezberdinak sakontzeko hautua egin.

4.1.2.1. Mutilengana gerturatzeko jarraitu; maskulinitate eredu zapaltzaileak deseraikitze tailerrak, ekintzak egin, eredu berriak bultzatu eta aurreko prozesuan lantzeko gelditu ziren alorretan sakondu

4.1.3.1. SOKA egitasmoaren barnean Gaztelekuko prozesuan parte hartu dutenekin lanketak egiten jarraitu, euren beharrei erantzun, generazio arteko aliantzak indartu eta, beharra eta nahia ikusiko balitz, herrira begira ekintzak antolatzeko saltoa egin.

3. ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GIPUZKOA

Programa

Indarkeriaren arreta

Helburua

4.2. Indarkeria matxistari aurre egiten diotenei zuzendutako arreta eredua hobetzea

Helburu zehatzak

4.2.1. Zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea

4.2.2. Herriko eragileek emakumeen arreta horretan izan dezaketen papera zehaztu eta horretarako tresna egokiak eskaintzea

Neurriak	Arduradunak	Epea
<p>4.2.1.1. Asteasun osatutako Arreta eta Koordinaziorako Erakunde Arteko I. Protokoloaren Mahai Interinstituzionala osatu eta jarraipena eman. Larrialdirik ezean, 6 hilabetez behin egingo da mahai hau</p> <p>4.2.1.2. Protokoloaren funtzionamendua bermatu, koordinatu eta jarraipena eman</p> <p>4.2.2.1. Indarkeria Matxistaren aurrean ematen den Erantzun Publikoaren inguruko lanketa egin herri mailan.</p>		



4.

BALIABIDEAK

Udalak planifikazio hau aurrera eramateko oinarritzko baliabideak bideratuko ditu. Zehazki, ondorengo hauek dira bideratuko diren baliabideak:

Aurrekontua			
Urtea	Udal barne baliabideak (aurrekontu propioa)	Beste finantzazio iturriak	Guztira
2021	7250€	2000€ (Berdinbidean)	9250€
2022	7250€	2500€ (Berdinbidean)	9750€

Giza baliabideak

Planifikazio honen arduradunak:

Maila politikoa:

Larraitz Alkorta Aizpurua: Berdintasun
Zinegotzia
Pilar Legarra Cortajarena: Alkatea

Maila teknikoa:



Libe Muguruza Agirre: Berdintasun Teknikaria


Asier Baglietto Gabilondo: Kultura-Kirola-
Berdintasuna Teknikaria



5.

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planifikazio bat ez da helburuak adostu eta hauek betetzeko ekintzak definitzen diren momentura mugatzen. Planifikazioa prozesu zikliko bat da, etengabeko hausnarketa eta ikasketa suposatzen duena.



dira:

- **Ekintza fitxa:** Planifikazioan adostutako ekintza zehatz bat burutzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak baliabide ekonomikoak jartzeko beharra aurreikusten denean, ekintzaren inguruko informazioa jasotzen duen fitxa.
- **Jarraipenerako fitxa:** urte amaieran planifikazio honen baitan burutu diren ekintza guztien fitxa beteko da.
- **Hobekuntzak ebaluatu eta kudeatu:** jasotako informazioa aztertzeke eta hurrengoko pausoak erabakitzeke lan esparruak urtero burutzen diren banakako saioak eta planifikaziorako mintegiak izango dira.

Genero ikuspegia barneratzen duen planifikazio batek ikuspegi androzentrikoarekin apurtzen du, gizarte eragile desberdinen interesak kontutan hartzen baititu, emakumeen interes estrategikoetan arreta berezia ipiniz. Honek zera eskatzen du:

- Emakumeak izateagatik urratuak diren eskubideak identifikatzea.
- Testuinguru zehatz batean emakume eta gizonen egoera eta aukeren desberdintasunak ezagutu eta aztertzea. Desberdintasun horiek diskriminazio egoerak sortzen dituzten jakiteko ondorengo faktoreak kontutan hartu beharko dira: baliabideak eskuratzeko aukera, eskubideetaz gozatzeko aukera, indarkeria bizitzeko arriskua, parte hartze maila, autonomia maila e.a.
- Generoan oinarrituriko desabantailak eta diskriminazio egoerei aurre egiteko politikak martxan jartzea estrategia duala erabiliz: genero zeharkakotasuna eta ekintza positiboak. Azken hauen artean emakumeei zuzenduriko jabekuntza prozesuak estrategikoak dira.

Planifikazio batean adostu diren helburuen betetze maila ezagutzeko martxan jarri diren ekintzen emaitzak neurtu behar dira. Horretarako informazioa sortu, jaso eta aztertu behar da. Zentzu horretan, planifikazio honen jarraipena eta ebaluaketa burutzeko ondorengo tresnak eta lan dinamikak erabiliko

Eranskina 1. Ekintza Fitxa: fitxa bete Aldundiaren laguntza ekonomikoa behar duten ekintzen inguruko informazio zehatza jasotzeko.

Lan ildoa: Emakumeen ahalduntzea eta baloreen aldaketa Programa: Ahalduntze prozesu estrategikoak Helburu orokorra: Emakumeen ahalduntzea bultzatzea					
Helburu zehatza	Emakumeei beraien ahalduntze prozesuetarako tresnak eta espazioak eskaini				
Neurria	Herrian eskaintzen diren ikastaroetan genero ikuspegia txertatzeko prozesua abiatu; emakume partehartzaileen interesak bildu, talde lanketak egin eta tresnak eskaini.				
EKINTZA MOTA					
Ekintza puntuala	bai	Ez X	Prozesu izaera	Bai X	ez
Prozesu izaera	<p>Aurretik eta/edo ondoren egindako beste ekintzekin duen lotura: Berdinbidean-en landutako Genero Ikuspegia Tokiko Kultura Politiketara mintegietatik ateratako lan tresnatik abiatuz, Asteasun antolatzen diren ikastaroen inguruko hausnarketa eta birplanteamendu bat egin nahi dugu, beste hainbat helbururen artean ahalduntze ikuspegia txertatzeko.</p> <p>Bide horretatik, herrian bertan aurrera eramaten ari den beste prozesu batekin lotuko dugu, "Mundu Bat Asteasun" izeneko parte hartze prozesuarekin hain zuzen. Bertan, herriko etorkinen behar eta interesak biltzeko prozesua abiatu da. Hortaz, intersektionalitateari helduz, nahiz eta lehenengo helburu moduan herriko ikastaroetan ahalduntze ikuspegia txertatzea izan, hau burutu ondoren kulturartekotasunari helduko diogu, ahalduntzeaz gain ikuspegi intersektional bat txertatze aldera.</p> <p>Hau da, nahiz eta prozesu honi ahalduntze ikuspegi batetik eman hasiera, aurrera begira ere bidea izango du kulturartekotasunari helduz.</p> <p>Ekintza diseinatzeko egindako lanketa (inplikaturako eragileak, landutako edukiak, identifikatu diren beharrak, emandako aurrera pausoak...):</p> <p>Udaleko maila tekniko eta politikoan lehenengo eta behin bilera jakin batzuk egin ditugu, prozesuaren izaera eta nondik-norakoak definitzeko. Jarraian, Berdinbidean-eko</p>				



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

	<p>teknikariekin egindako bakarkako saioaz baliatuz, Asteasun kultura eta kirol alorrean antolatzen diren ikastaroen inguruko diagnostiko labur bat osatu dugu.</p> <p>Udal mailan berriz ere arduradun tekniko eta politikoekin bilkura egin eta prozesu hau bideratuko duen elkarte definitzeaz gain, lan ildo zehaztu dugu.</p> <p>Hurrena, lanketa bideratuko duen elkartearekin jarri gara kontaktuan, aurrekontua eta gure lan ildo lurreratzeko eskaerarekin. Elkarte hau EMAGIN da.</p> <p>Aurrekontua jaso eta maila tekniko eta politikoan aztertutakoan, onespina eman eta lehenengo bilera tekniko osatu dugu Emagin elkartearekin. Bilera honetan Kultura Teknikaria, Berdintasun Teknikaria eta Emagin elkarte batu ginen; beraien proposamena eta gure beharren inguruan hitz egin, eta proposamen hori Asteasun lurreratzearaz gain, gure beharretara egokitu genuen.</p> <p>Jarraian, lehen gerturatze bat edukiko dugu herriko emakumeei euren interesak biltzeko galdetegi bat zabalduz. Honen emaitzak jaso ondoren, lan saio ezberdinak jarriko ditugu martxan, lehen gerturatze horretatik ateratako ondorioez baliatuz, kolektibo ezberdinen nahi eta beharrak jasotze aldera.</p>
Ekintzaren deskribapena	<p>Landuko diren edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Genero ikuspegia txertatzea herriko ikastaroetan- Emakumeen ahalduntzea- Kulturartekotasuna <p>Data eta lekua:</p> <p>2023ko martxotik irailera, Asteasun</p> <p>Dinamizatailea/enpresaren izena:</p> <p>EMAGIN ELKARTEA</p>

AURREKONTUA (ekintza zehatzen arabera bananduta)		
<ul style="list-style-type: none"> - Bi bilera tekniko: 180€ - Galdetegia: 1200€ - 2 lan saio: 1500€ - Aurkezpena: 300€ - Txostena: 675€ - Garraioa: 175€ - Koordinazioa: 604,5€ <p style="text-align: center;">GUZTIRA: 4634,5€</p>		
Finantzaketa iturria (aurreikuspena)	Udala	Foru Aldundia
Zenbatekoa (aurreikuspena)	2134,5€	2500€

Eranskina 2. Jarraipenerako fitxa: Burututako ekintzen informazioa jasotzeko eta aurrera begirako lanaren oinarriak finkatzeko

URTEA:			
Lan ildo:			
Programa:			
Helburu orokorra:			
Helburu zehatza			
Neurria			
Arduraduna			
JARRAIPENA			
Parte hartzaileak (zenbat)	Emakumeak:	Gizonak:	Ez binarioak:
Parte hartzaileak (perfila)	Adin tartea:	Jatorria:	Aipagarria:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Burutu diren saio eta ordu kopurua			
Landu diren edukiak			
Lortu diren emaitzak/aldaketak			
BALORAZIOA			
Helburu zehatzaren betetze maila	Gutxi	Zerbait	Asko
Balorazioa egiteko euskarriak	Adierazleak (zein da balorazioa egiteko aztertu duzuen informazioa)		
Aurrera begira eman beharreko pausoak			

SEIGARREN PUNTUA

Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuak aldatzea: onespina

AURREKARIAK

- 1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.
- 2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua adjudikatu zuen.

3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.

4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.

5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespena eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.

6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.

7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.

9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena

Udalbatzak du eskumena, estatutuen aldaketa onartzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60 artikulua xedatutakoaren arabera.

Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikulua arabera.

Araudia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: 22, 44 eta 47 artikulua.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikulua.

Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremani buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen: 1-17 artikulua; 29 eta 30 artikulua, besteak beste.

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.

Gaiaren azterketa

Estatutuak aldatzeko arrazoiak dira:

- 1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.
- 2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutuetan islatzeko.
- 3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du.

Prozedura

Bi araudi uztartu behar dira:

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 60. Artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiak Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru araua.

Bi araudiak uztartuta Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketa prozedura ondorengoa da:

- a) Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.
- b) Aldaketa proiektua egitea Batzorde iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.
- c) Batzarrak onartzea, gehiengo soiluz, eta gainera, gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen erdia ordezkatu beharko du.
- d) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udaletxeetako iragarki tauletan erakutsiz.
- e) Batzarrak erabakiko ditu alegazio, eragozpen eta oharpen horiek.
- f) Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.
- g) Txosten hori egin bada edo horretarako arauzko epea iragan bada, edukia ikusi ondoren sustatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, dei egingo dio berriro Batzarrari estatutuetan antzeman diren irregulartasunak zuzentzeko.
- h) Mankomunitateko udal guztietako Udaltzatek onetsiko dituzte behin betiko, kideariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.
- i) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Tolosaldeko mankomunitateak bete ditu estatutuen aldaketarako prozedura betekizunak.

Idazkariak egin du alde aurreko txostena, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.3 d)1 artikuluan eskatzen duena.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartermi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udaltzatek, aho batez

ERABAKI HAU HARTU DU

Lehenengoa: Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikuluz, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA	ONARTUA GEHIENGO OSOZ	EZ ONARTUA
5. artikulua	5. artikuluari eranstean zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.	BAI	
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomancomunitatea.eus delarik.	BAI	
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	BAI	
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osieran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.	BAI	
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eranstean zaio: Batzarra udalerrri mankomunitate bakoitzeko ordezkaririk banak osatzen du	BAI	
19. artikulua	19. artikuluari eranstean zaio: Udalerrri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.	BAI	
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuaren aldaketaren onespina	BAI	
25. artikulua	5. azpiatala eranstean zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.	BAI	
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuaren aldaketa proiektua	BAI	
55. artikulua	55. artikuluari eranstean zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	BAI	
56. artikulua	56. artikulua 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkio 2.- Udalen ekarpenak udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatuko dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariek	BAI	

	<p>ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean.</p> <p>3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du.</p> <p>4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du.</p> <p>5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalarari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrek diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalarari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko.</p> <p>Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.</p>		
60. artikulua	<p>60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakariari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorri edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorri dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari. - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kideatariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. 	BAI	
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.	BAI	



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	BAI	
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.	BAI	
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.	BAI	
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.	BAI	
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	BAI	
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiak Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.	BAI	

Bigarrena.- Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak %2,5 gehigarria igotzea: onespena

I. 2022/12/24an, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Lege argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluaren, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei helden die, eta honako hau arautzen du:

“19. artikulua. Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.

(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren bi aldiatarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez.

2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundea Jauraritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”

Era berean, 2023/03/2ko EHAAean argitaratu da 29/2022 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, Jauraritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsarien 2023. urteko gehikuntzak onartzen dituen Erabakia. Ebazpen horren 3. Artikuluan jasotakoarekin bat, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 11/2022 Legearen 122.2.a artikuluekin bat etorritik, 2023an, lanpostu-maila bakoitzari dagokion destino-osagarria ezarri da.

Aldi berean, Asteasuko Alkate andreak jasotzen dituen ordain sariak % 2,5ko igoera izatea proposatu zen, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

II. Ikusirik Udaleko 2023 urteko aurrekontuen sarreraren I. kapituluaren nahiko baliabideak daudela aurreko atalean jasotako langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzeko.

Bitarteko Idazkariak aurretik txosten-proposamena eman du.

Aurretik, Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak irizpena eman du.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartergi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. 2023ko ekitaldian, 2023/01/01etik aurrerako eraginarekin, Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko % 2,5 gehigarria.

Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”

BIGARRENA. 2023ko ekitaldian, 2023/01/01etik aurrerako eraginarekin, Asteasuko Alkate andrearen ordainsariei % 2,5ko igoera gehigarri izatea, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”

ZORTZIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Alkate andreak hitza hartu du. Otsailean egin zen ohiko bilkuran, “ASTEASUKO TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA – ASTEASU TEK” elkarte eratzeko eta bertako kide izateko aldeko borondatea adierazi zuen Udalbatzarrak, eta elkarte horren estatutuak onartzeko borondatea adierazi zuen ere. Aipatu elkartearen eratze akta sinatzeko ahalmena eman zitzaion alkateari ere. Une honetan, bi berri izan ditu:

Batetik, elkarte EJko elkarte erregistroan inskribatu egin behar da. Horren inguruan, orain dela gutxi jakin izan du aipatu elkarte erregistroak atzera egin dituela beste TEK baten antzeko estatutu batzuk, estatutu horiek GFak proposaturakoa ere izan zirelarik. Une honetan, GFak bere azterlana egiten ari da, eta ondorioak izan bezain laster, Asteasuko TEKaren estatutuetan dagozkion eraginen berri emango zaigu. Hori hala bada, estatutuak aldatzeko izapideak egin behar izango dira.

Bestetik, aipatu TEK ABEEko arduradun teknikoak adierazi digu Asteasuko kiroldegien kasuan egindako kalkuluen arabera, aipatu kalkuluak egiteaz arduratzen den arkitekto kalkulistik argitu duen arabera, kiroldegiko DECK estalkiaren egitura oso egoera estuan dago, estalkiaren beraren hasierako diseinuarekin, eta ez da karga gehigarririk aplikatu behar. Beraz, kiroldegian aurreikusitako moduluak banatuko dituzte, bai Asteasuko eskolan, bai igerilekuetan, hasieran planteatutako potentzia bermatzeko,



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aldundiak eskatu zuen bezala. Aurrekoan esan bezala, estatutuak aldatzeko izapideak egin behar izango dira.

Amaitzeko, Alkate andreak adierazi du maiatzaren 28an egindo diren hauteskundeetako mahaikideen zozketa hurrengo asteartean egingo dela, dagokion udalbatzarrean.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:17 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2023ko apirilaren 25ean.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza

*Eginbidea: adierazteko akta honetan 2023/06/14an eginiko bilkuran Udalbatzarrak onartutako akta-zuzenketak txertatu direla.
Asteasun.
Bitarteko Idazkariak.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Udalbatzarreko akta 2023.04.25 zuzenketekin

CSV/EKS:

SINA73498efa-f405-41bb-943e-0c59c64ae1ae